

# **BANAKETA ETA**



# **KOMUNIKAZIO KANALAK**

Lehen esan bezala bi bezero mota edukiko ditugu. Lehenengoa margolari profesionala izango da. Honek RoomPaint erosiko du honekin lana egiteko.

Besteak pertsona arruntak izango dira. Hauek beraien etxea margotu nahi badute makina alokatu eta dute denbora tarte jakin batean erabili izan ahalko dute. Alokairua egunekoa izango da.

Horregatik bi kanal mota izango ditugu. Bat propioa izango da eta zuzenean komertzial taldeak internet bidezko salmenta burutuko du. Gure lokalean erosteko aukera ere egongo da. Lokalean makinak nola funtzionatzen duen ikusi ahal izango dute.

Beste kanala bazkidearena izango da. Hau da, zeharkakoa. Pintura eta brikolage dendeekin kontratu bat sinatu eta bertan Roompainta alokatu edo erosi ahalko da. Erosi baino lehen dendan bertan ere gure makina lanean ikusi ahal izango dute. Pertsona bat egongo da makinak nola funtzionatzen duen azaltzen.

Gure ondasun eta zerbitzuak ezagutzera emateko hainbat prozesu egitea pentsatu dugu. Gure bazkideen dendetan kontsumitzailea erakartzeko gure produktuaren bideo bat jartzea denda osoan zehar.

Beste alde batetik, internetetik kanal bat sortzea honako produktua saldu ahal izateko ideia ona dela uste dugu. Horrela, kontsumitzailea gehiago erakarriko du Hitzaldiak egitea ere da egingo ditugu gure produktua

Gure balio proposamena baloratzeko bazkideen dendetan, bideo bat jarriko dugu Roompaintek nola funtzionatzen duen ikus dezaten. Bestela, pertsona bat egon daiteke zuzenean erakusketa bat egiten jendeak ikus dezan. Margoa erostera joaten diren pertsonak gure balio proposamenak nola funtzionatzen duen ikusiko du.

Bideoan, gerra bat eta gerraren ondorengo txikizioak ikusiko da, gerrara zerutik naranjaz jantzitako margolari batzuk iritsiko dira eta etxe, denda, erraikin publikoak roompaintekin berriro distira eta edertasunera bueltatuko dira! Oraindik ere politagoa izango dute koloreak!

Bestalde, profesionalentzat ikastaroak egingo ditugu. Hauei makinak nola funtzionatzen duen azalduko diegu. Zein gauza ezberdin egin daitezkeen honekin. Horrela produktua erostera ateak irekiko ditugu, baita bere funtzionamendua errextasun gehiagorekin emango da bere erabilera erosleentzat. Ikastaroetan, ikasle bakoitza banan-banan roompaint probatuko du eta pixkanaka-pixkanaka beraien abilitatiak jardungo dute.

Ez dugu ahaztu behar profesionalen batek gure produktu berria alokatzen badu lehen astea doainik izango dela, eta askatasun osoz erabiliko duela. Aste horretan produktuan arazoren bat gertatzen bada guk hori konponduko dugu. Ez dugu inori dirurik eskatuko guk gure poltsikotik eragindako miñak ordainduko ditugu eta erosleari beste roompaint bat emango diegula beste hilabete bat doainik erabiltzeko. Gainera, lehen astea doainik izatea ez da gure eskaintza bakarra, baita nahi duzun koloretako funda oparituko dugu, Horrela honako produktua edozein tokitara eramane dezakezu errextasun osoz. Maletatxo moduko funda bat izango da, gurplekin eta 5 kolore desberdin eskeintzen ditugu; laranja, urdin argia, beltza eta zuria izango dira.

Gure enpresaren nahia erosleari errextasunak eskaintzea da eta horretarako ahalik eta oztopo gutxien jartzea da gure proposamena. Eta horretan ahalegin guztiak egingo ditugu!